



## **Sektore publikoko kontratuen legearen mende dauden kontratazioak egiteko UPV/EHUko UDA IKASTAROAK Fundazioaren barne jarraibideen egokitzapena, azaroaren 8ko 9/2017 SPKL Legearekin bat etorritz egindakoa.**

### A. KONTRATAZIOAREN APLIKAZIO ESPARRUA.

#### A.1. FUNDAZIOAREN IZAERA JURIDIKOA.

A.1.1.- UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOA (aurrerantzean, FUNDAZIOA) irakaskuntza izaerako eta unibertsitate hedapeneko fundazio misto bat da, pribatua eta irabazi asmorik gabekoa. Izaera juridiko propioa du eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun erabatekoa du. Legeek ezarritako mugak baino ez ditu, eta sektore publikokoa da SPKLren ondoretarako, lege horren 3.1.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

A.1.2.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak dioenez (aurrerantzean SPKL), UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOA "sektore publikokoa" da, eta herri administrazio bat ez bada ere, aipatu Legean (3.3 b. artikuluan) "botere esleitzailerik" gisa jotzeko zehazten diren ezaugarriak ditu, eta, horrenbestez, SPKLn bertan horren inguruan ematen diren xedapenak aplikatu behar zaizkio.

#### A.2. KONTRATAZIOAK EGITEKO BARNE JARRAIBIDEAK EGOKITZEAREN HELBURUA ETA ZEIN LEGE TESTUINGURUTAN ONARTZEN DIREN.

##### A.2.1.- BARNE JARRAIBIDEEN HELBURUA

Barne jarraibide hauen helburua da fundazioak kostu bidez egiten dituen kontratuak esleitzeko prozedura arautzea. Kontratuek publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete behar dituzte, eta, barne jarraibide hauen bitartez, bermatuko da kontratua kalitate-prezio erlazio aldetik onuragarriena den eskaintza aurkezten duenari esleitzeko zaiola, bat eginez SPKLren 1. artikuluekin.

##### A.2.2.- KONTRATAZIOAK EGITEKO BARNE JARRAIBIDEEN EGOKITZAPENA ZEIN LEGE TESTUINGURUTAN ONARTZEN DEN.

UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN lehengo barne jarraibideen helburua zen fundazioak kostu bidez egiten dituen kontratuak (erregulazio harmonizatukoak ez direnak) esleitzeko prozedura arautzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 191.4 artikuluekin bat etorritz.

Ondorengo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL), zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baititu eta SPKLTB indargabetzen baitu, honako hau ezartzen du kontratazioak egiteko barne jarraibideei buruzko bosgarren xedapen iragankorren: "Hirugarren tituluan aipatzen diren enteek 318. eta 321. artikuluetan ezarritakora egokitu beharko dituzte kontratazioarako dituzten barne-jarraibideak, lege hau



indarrean jartzen denetik gehienez ere lau hileko epean. Ordura arte, beren jarraibide indardunen arabera kontratatzen jarraituko dute, artikuluko horietan ezarritakoaren aurkakoak ez badira”.

Jarraian adierazten dira barne jarraibide hauek onartzen diren egunean indarrean dauden SPKLren aginduak, zeinak UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOARI aplikatzekoak zaizkion, ez delako herri administrazio bat eta botere esleitzailerik bat delako.

Bosgarren xedapen iragankorra. Kontrataziorako barne-jarraibideak.

Hirugarren tituluan aipatzen diren enteei 318. eta 321. artikuluetan ezarritakora egokitu beharko dituzte kontrataziorako dituzten barne-jarraibideak, lege hau indarrean jartzen denetik gehienez ere lau hileko epean. Ordura arte, beren jarraibide indardunen arabera kontratatzen jarraituko dute, artikuluko horietan ezarritakoaren aurkakoak ez badira.

## HIRUGARREN LIBURUA

### **Sektore publikoko beste ente batzuen kontratuak**

#### I. TITULUA

#### **Administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailerik kontratuak**

316. artikulua. *Araubide juridikoa.*

Administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailerik kontratuak titulu honetako arauak gobernatuko dituzte.

317. artikulua. *Erregulazio harmonizatuko kontratuak prestatu eta adjudikatzea.*

Titulu honek aipatzen dituen botere adjudikatzailerik ituntzen dituzten eta erregulazio harmonizatuari lotuta dauden kontratuen prestatzeko eta adjudikatzeko, lege honen II. liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 1. eta 2. ataletan ezarritako arauak jarraituko zaie.

318. artikulua. *Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak adjudikatzea.*

Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak adjudikatzean, honako xedapen hauek aplikatuko dira:

a) 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak eta 15.000 eurotik beherakoa balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak zuzenean adjudikatu ahalko zaizkio. jarduteko gaitasuna duen edozein enpresabururi, baldin eta kontratuaren objektua den prestazioa emateko behar adinako gaikuntza profesionala badu.

b) 40.000 euro edo gehiagoko eta 5.225.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak eta 15.000 eurotik gorako eta 209.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak lege honen bigarren liburuaren, I. tituluaren I. kapituluaren 2. atalean aurreikusitako prozeduretatik edozeinen bitartez adjudikatu ahalko dira, publikitatearik gabeko prozedura negoziatuaren salbuespenarekin; azken hori, izan ere, 168. artikuluan aurreikusitako kasuetan erabili ahalko da soilik.



168. artikulua. *Publiziterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko kasuak.*

Kontratazio-organoek soilik honako kasu hauetan adjudikatu ahalko dituzte kontratuak alde zuzenetik lizitazio-iragarkia argitaratu gabe prozedura negoziatuaren bitartez:

a) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratueta eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratueta, honako kasu hauetan:

1.a Prozedura ireki edo prozedura murriztu baterako inongo eskaintzarik aurkeztu ez denean, eskaintza egokirik aurkeztu ez denean, parte hartzeko eskaerarik ez dagoenean edo parte hartzeko eskaera egokirik ez dagoenean, baldin eta kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira; gainera, inongo kasutan ezingo da handitu lizitazioaren oinarriko aurrekontua, ez eta aldatu ere ordainketarako sistema, eta txosten bat bidali beharko zaio Europako Batzordeari, azken horrek hala eskatzen duenean.

Eskaintzak desagokizat joko dira kontraturako egokiak ez direnean, nabarmenki ez direlako gai muntako aldaketarik egin ezean kontratazio-organoaren beharrezan eta baldintzak betetzeko, kontratazioa arautzen duten baldintza-agirietan zehaztutakoak. Parte hartzeko eskariak desagokizat joko dira baldin eta kasuko enpresaburua baztertua geratu behar bada edo gera badaiteke lege honetan ezarritako arazoengatik edo ez baditu betetzen kontratazio-organoak ezarritako hautapen-irizpideak.

2.a Obrak, hornidurak edo zerbitzuak enpresaburu jakin bati baizik ezin zaizkionean enkargatu honako arazo hauetako batengatik: bakarra den eta Espainiako Ondare Historikoan ez dagoen artelan bat edo errepresentazio artistiko bat sortzea edo eskuratzea izatea kontratuaren objektua; arazo teknikoengatik lehiarik ez egotea; edo eskubide eskusiboak babestu behar izatea, horien barnean direla jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak.

Arrazo teknikoengatik lehiarik ez egoteko kasua eta eskubide eskusiboak babesteko kasua, horren barnean dela jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak babestekoa, beste aukera edo ordeko arazoizkorik ez dagoenean aplikatuko dira soilik, eta lehiarik ez egotea ez denean kontratua adjudikatzeko baldintzen eta irizpideen konfigurazio murriztaile baten ondorioa.

3.a Kontratua isilpeko edo erreserbatu deklaratu denean, edo kontratua egikaritzeko segurtasun-neurri bereziak ezarri behar direnean indarrean den legeriaren arabera, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestu behar direnean eta halaxe adierazi denean 19. artikuluan 2. apartatuaren c) letran aurreikusitakoaren arabera.

b) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratueta, honako kasu hauetan:

1.a Kontratazio-organoak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko urgentzia batek eskatzea kontratua lehenbailehen egikaritu dadila, 119. artikuluan arautzen duen presako izapidetzea aplikatuz lortu ezin delako.



2.a 167. artikulua e) letran aipatzen den egoera gertatzen denean, baldin eta negoziazioan sartzen badira aurreko prozeduran kontratazio-prozeduraren baldintza formalekin bat datozen eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatuak guztiak, eta, betiere, kontratuaren hasierako baldintzak ez direnean funtsean aldatzen. Nolanahi ere, ezingo da inoiz lizitazio-prezioa handitu edo ordainketarako sistema aldatu.

c) Hornidura-kontratuetan, gainera, honako kasu hauetan:

1.a Produktuak ikerketarako, saiakuntzarako, azterlanerako edo garapenerako ez bestetarako fabrikatzen direnean; baldintza hori ez zaio aplikatuko produktua merkatuan bideragarria den jakiteko edo ikerketaren eta garapenaren kostuak berreskuratzeko egiten den serieko produkzioari.

2.a Hasierako hornitzaileak entrega gehigarriak egiteko denean, dela ohiko erabilerako hornigaiz edo instalazioz hornitzen jarraitzeko, dela egon dauden hornigaiak edo instalazioak gehitzeko, eta hornitzailez aldatzeak Administrazioa bestelako ezaugarri teknikoak dituzten materialak eskuratzera behartuko balu eta horrek neurrigabeko bateraezintasunak nahiz zailtasun teknikoak sortuko balitu bai erabilerarako bai mantentze-lanerako. Kontratu horien iraupena ezingo da izan, oro har, hiru urtetik gorakoa.

3.a Lehengaien merkatu antolatuetan edo burtsetan kotizatzen duten hornigaiak eskuratzeko denean.

4.a Merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile batekin edo konkurtso bateko administratzaileekin baldintza biziki onuragarrien arabera itundutako horniketa baterako denean, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio itundutako horniketa baterako denean.

d) Zerbitzu-kontratuetan, gainera, dena delako kontratua proiektuen lehiaketa baten ondorioa denean eta aplikatu beharreko arauen arabera irabazleari adjudikatu behar zaionean. Hainbat irabazle izanez gero, guztiei egin behar zaie negoziatioetan parte hartzeko gonbidapena.

Halaber merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile batekin edo konkurtso bateko administratzaileekin baldintza biziki onuragarrien arabera itundutako zerbitzu baterako denean, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio itundutako horniketa baterako denean.

e) Obra- eta zerbitzu-kontratuetan, gainera, haien objektua diren obra edo zerbitzuak kontratista berari lege honetan araututako lizitazio-prozeduraren bat erabiliz eta dagokion lizitazio-iragarkia argitaratu ondoren adjudikatu zaizkion antzeko beste batzuen errepikapena direnean, baldin eta zerbitzu edo obra horiek prozedura horien bidez adjudikatutako hasierako kontratuaren objektua izan den oinarritzko proiektu bati egokitzen bazaizkio, prozedura hau erabiltzeko aukera hasierako kontratuaren lizitazio-iragarkian adierazi bada, obra edo zerbitzu berrien zenbatekoa kontuan hartu bada hasierako kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzekoan, eta hasierako kontratua egin zenetik hiru urte baino gehiago iragan ez badira. Oinarritzko proiektuan



nahitaez aipatuko da zenbat obra edo zerbitzu gehigarri egongo diren, bai eta haiek zer baldintzatan adjudikatuko diren.

319. artikulua. *Ondoreak eta azkentzea.*

1. Administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailerekin egindako kontratuen ondoreak eta ezeztatzea zuzenbide pribatuko arauak gidatuko dituzte. Aurrekoa gorabehera, honako artikulua hauetan xedatutakoak izango zaizkio aplikatzekoak: 201. artikulua, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak buruzkoa; 202. artikulua, kontratuak egikaritzeko baldintza bereziki buruzkoa; 203. artikulutik 205. artikulurakoak, kontratuak aldatzeko kasuak buruzkoa; 214. artikulutik 217. artikulurakoak, lagapenari eta azpikontratazioari buruzkoa, eta 218. artikulutik 228. artikulurakoak, kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeari buruzkoa; halaber, aplikatzekoak izango zaizkio 198. artikuluan 4. apartatuan, 210. artikuluan 4. apartatuan eta 243. artikuluan 1. apartatuan ezarritako ordainketa-baldintzak.

Halaber, kontratuaren aldaketa administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen kasuetan, erakunde kontratatzailea zer ministerio-saili edo administrazio autonomikoko edo toki-administrazioiko zer organori atxikita dagoen edo haietako zeinen tutoretzapean dagoen, haren baimena beharko da, baldin eta zenbatekoa 6.000.000 eurokoa edo handiagoa bada eta aldaketaren zenbatekoa banaka nahiz osotara kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino handiagoa bada BEZik gabe. Baimen hori eman aurretik, betiere, Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoaren aholkularitza-organoko baliokideak nahitaezko txostena eman beharko du.

2. Kontratu horietan, nolana ere, suntsiarazteko kausa izango da prestazioa hasieran itundutako baldintzetan ezin ematea 204. eta 205. artikuluen arabera kontratua ezin alda daitekeenean, bai eta 211. artikuluan i) letran jasotakoa ere.

Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuei 279. artikuluan eta 294. artikuluan haietako bakoitzarentzat ezarritako suntsiarazte-kausak aplikatuko zaizkie. Aurrekoa gorabehera, botere adjudikatzailerekin zer ministerio-saili edo administrazio autonomikoko edo toki-administrazioiko zer organori atxikita dagoen edo haietako zeinen tutoretzapean dagoen, hark erabaki beharko du obra edo zerbitzua berreskuratzea, haien ustiapena etetea, haiek bahitzea edo haietan esku hartzea.

320. artikulua. *Proiektuko akatsen edo errakuntzen ondorioz kontratistak duen erantzukizuna.*

Obra-proiektu bat osorik egitean dautzan zerbitzu-kontratuetan, proiektuaren akats edo errakuntzen erantzukizuna eskatuko zaio kontratistari, 314. artikuluan xedatutakoari jarraituz.



### **A.3. UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO PROZEDURA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO AZAROAREN 8ko 9/2017 LEGEARI EGOKITUA.**

I. SPKL aplikatzekoa zaien UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren kontratuak.

Erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuak.

1.2. Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak.

1.2.1.- Kontratu txikiak

1.2.2.- Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden gainerako kontratuak.

II. Kontratazio espedientea.

2.1. Hasiera eta edukia.

2.2.1.- Kontratu txikiak

2.2.2.- Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden gainerako kontratuak.

2.2. Espedientea onartzea.

2.3. Lizitazio iragarkia.

2.4 Esleipena egiteko prozedura.

2.5. Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.

2.6. Esleipenaren ebazpena eta jakinarazpena.

2.7. Kontratuak formalizatzea.

2.8. Formalizazioa iragartzea.

### **I. SPKL APLIKATZEKO ZAIEN UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN KONTRATUAK.**

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak botere esleitzailerik gisa kostu bidez egiten dituen kontratuak (kontratatzaile fisiko edo juridikoak onura ekonomikoren bat lortzen duelako, hala zuzenean nola zeharka) "sektore publikoko kontratu"-tzat jotzen dira, eta SPKL aplikatu behar zaie (SPKLren 4. artikulutik 11.era bitartekoetan deskribatzen diren "baztertutako negozioak eta kontratuak" direnei izan ezik).

Hori bai, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren sektore publikoko kontratu hauek ez dira administrazio kontratuak (hau da, ez daude administrazio zuzenbideko araubide juridiko baten mende, ñabardura batzuk kenduta); kontratu pribatuak dira, eta SPKLren 26. artikuluan adierazitako zuzenbide pribatuko araubidearen mende daude.

#### **1.1. Erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuak.**

Zenbateko hauen edo hauetatik gorako balio zenbatetsia duten obra kontratuak, obren kontziesioko kontratuak, zerbitzuen kontziesioko kontratuak, hornidura kontratuak eta zerbitzu kontratuak dira (obra, hornidura eta zerbitzu kontratuen kasuan balioa kontratazio organoak kalkulaturako zenbateko osoaren baliokidea da, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe):



- 5.548.000 euro obra kontratueterako, obren kontzесиoko kontratueterako, zerbitzuen kontzесиoko kontratueterako.
- 221.000 euro hornidura eta zerbitzu kontratueterako.

Nolanahi ere, ez dira erregulazio harmonizatuko kontratutzat joko SPKLren 19.2 artikuluan deskribatutakoak, balio zenbatetsia edozein dutela ere:

Erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuak prestatzeko eta esleitzeko, SPKLren II. liburuko I. tituluko I. kapituluaren 1. eta 2. ataletan ezarritako arauei jarraituko zaie (115-187 artikulua, Herri Administrazioetako kontratazio jardura batzuei buruzkoak).

## **1.2. Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak.**

Erregulazio harmonizatuari lotutako kontratueterako adierazitako atalasetik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuak, obren kontzесиoko kontratuak, zerbitzuen kontzесиoko kontratuak, hornidura kontratuak eta zerbitzu kontratuak dira. Hauek dira erregulazio harmonizatuari lotutako kontratueterako atalaseak:

- 5.548.000 euro obra kontratueterako, obren kontzесиoko kontratueterako, zerbitzuen kontzесиoko kontratueterako.
- 221.000 euro hornidura eta zerbitzu kontratueterako.

Erregulazio harmonizatukoak ez diren kategoriaren barruan, garrantzi berezia dute kontratu txikiek, obra, hornidura eta zerbitzu kontratuak emateko bizkortasunagatik. 118. artikuluekin eta 54. ADrekin bat etorritik, kontratu txikitzat jotzen dira urtebetetik beherako iraupena duten eta atalase hauetatik beherakoak diren kontratuak:

- 50.000 euro FUNDAZIOAK Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publiko gisa egiten dituen kontratueterako, baldin eta ez badira bideratzen kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara eta azpiegitura zerbitzuetara.
- 40.000 euro obra kontratueterako, baldin eta kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara edo azpiegitura zerbitzuetara bideratzen badira.
- 15.000 euro hornidura eta zerbitzu kontratueterako, baldin eta kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara edo azpiegitura zerbitzuetara bideratzen badira.

SPKLak baldintza desberdinak ezartzen baditu erregulazio harmonizatukoak diren eta ez diren kontratueterako, dokumentu honek erregulazio harmonizatukoak ez direnei egingo die erreferentzia; izan ere, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak mota horretako kontratuak formalizatu ditu gehienbat orain arte, eta erregulazio harmonizatuko kontratueterako ezin da egon SPKL eta Europako Zuzentarauak ez diren beste zehaztapenik.

Erregulazio harmonizatukoaren mende ez dauden kontratuak esleitzean, honako xedapen hauek aplikatuko dira:

### **1.2.1.- Kontratu txikiak:**



- **Araubide orokorra:** 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra kontratuak, obren kontzesioko kontratuak eta zerbitzuen kontzesioko kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak zerbitzu eta hornidura kontratuak direnean –kontratu txikiak-, zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna duen eta kontratuaren helburu den prestazioa emateko behar den gaitasun profesionala duen edozein enpresariri. Hala ere, aldezturik saiatu behar da, ahal den heinean, aurrekontu bat baino gehiago lortzen, eta hori espedientearen jasoko da, bermatzeko osotasun printzipioa betetzen dela eta ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko bideratzen diren funtsak modu eraginkorrean erabiltzen direla.

-**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publikoek egindako kontratu txiki batzuen araubide espezifiko:** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publikoek eginiko kontratuei aplikatzen zaien araubidea ezartzen duen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, jardueraren izaera berezia kontuan hartuta eta Lege honen 118. artikuluan aurreikusitako mugaren salbuespen gisa, kontratu txikitzat joko dira beti Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publikoek egiten dituzten 50.00 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura eta zerbitzu kontratuak, baldin eta ez badira bideratzen kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara eta azpiegitura zerbitzuetara.

UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publikoen artean dago, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legean ezarritako baldintzetan, zeinetan halakotzat jotzen baitira unibertsitate publikoak, ikerketako organismo publikoak, fundazioak, partzuergoak eta estatuko administrazio orokorreko gainerako exekuzio agenteak, beste herri administrazio batzuen mendeko aurreko antzeko ikerketako organismo eta erakundeak, ikerketa biomedikoko fundazioak eta Osasun Sistema Nazionaleko zentroak, erakundeak eta partzuergoak.

### **1.2.2.- Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden gainerako kontratuak:**

- 40.000 euroko edo hortik gorako eta 5.548.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuak, obren kontzesioko kontratuak eta zerbitzuen kontzesioko kontratuak eta 15.000 eurotik gorako eta 221.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu eta hornidura kontratuak SPKLko bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 2. atalean (131-187) aurreikusitako edozein prozeduraren bidez esleiri daitezke. Prozedura horiek esleipen prozedura irekiak arautzen dituzte, zeinak laburtuak, murriztuak, negoziatuak, lehia elkarrizketa bidezkoak, negoziatzen dituzten lizitazioak eta berrikuntzarako elkarketak izan baitaitezke, baita publizitaterik gabek ere 168. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

## **II. KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.**

Kontratuak egiteko, dagokion kontratazio espedientea izapidetu behar da aurretik.

### **2.1. Hasiera eta edukia.**

#### **2.1.1.- Kontratu txikiak**





SPKLren 118. artikuluekin bat etorri, kontratu txikietan espedientea izapidetzeko, kontratazioaren beharra arrazoitzen duen txostena eskatuko zaio kontratazio organoari. Era berean, gastua onartzeko eta legokiokeen faktura aurkezteko eskatuko da. Fakturak SPKL honetako garapen arauak zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.

Obrarako kontratu txikietan, obren aurrekontua gehitu beharko da, eta, arau espezifikoek hala agintzen dutenean, egin beharreko proiektua ere gehituko da. Era berean, SPKLren 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze bulegoen edo unitateen txostena ere eskatu beharko da, baldin eta lanek obraren egonkortasun, segurtasun edo estankotasunari eragiten badiote.

Espedientean justifikatu beharko da, batetik, ez dela kontratuaren helburua aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, eta, bestetik, kontratistak ez duela sinatu banaka edo batera artikulua honetako lehen atalean jasotzen den zenbatekoa gainditzen duen beste kontratu txirik. Kontratazio organoak egiaztatuko du bete egiten dela arau hori. Baztertuta gelditzen dira SPKLren 168.a) artikuluan jasotako balizko kasuak.

Kontratu txikiak SPKLren 46.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

### **2.1.2.- Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden gainerako kontratuak:**

Kontratazio espedientea **kontratuaren beharra arrazoitzen duen txostenaren** bitartez abiaraziko da, SPKLren 28. artikuluan zehaztutako baldintzetan (hau da, azaldu behar da zernolakoak diren eta zein iraupen duten adierazitako kontratuaren bitartez bete behar diren beharrek, eta zergatik den egokia kontratuaren helburua eta edukia behar horri erantzuteko). Txostena UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren webguneko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Espedientean sartuko dira kontratua arautuko duten klausula **juridiko-ekonomiko partikularren plegua** eta **baldintza teknikoaren plegua**.

Kontratua esleitzeko lehia elkarrizketaren prozedura aukeratzen bada (II. liburuko I: tituluko I. kapituluko 2. ataleko 5. azpitalean arautua), SPKLren 174. artikuluan 1. atalean adierazten den deskripzio agiria sartuko da espedientean administrazio klausulen pleguen eta baldintza teknikoaren pleguen ordean. Esparru akordioetan oinarritutako kontratuak esleitzeko prozeduren kasuan (SPKLren 221.4 artikuluan araututako enpresak lizitazio berri batera gonbidatuz), SPKLren 221.5 artikuluko azken paragrafoan aipatzen den lizitazio agiria sartuko da espedientean klausula juridiko-ekonomikoen pleguen eta baldintza teknikoaren pleguen ordean.

Espedientean behar bezala justifikatuko dira:

- Lizitazio prozeduraren aukeraketa.
- Parte hartzaileei eskatzen zaien sailkapena.



- Kaudimen tekniko edo profesionalaren eta ekonomiko eta finantzarioaren irizpideak, eta kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak, baita kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ere.
- Kontratuaren balio zenbatetsia. Bertako kontzeptu guztiak adierazi beharko dira, eta lan kostuak ere bai, baldin badaude.
- Prestazioak kontratatuz Fundazioaren zein beharri erantzun nahi zaion, eta horrek zer lotura duen kontratuaren helburuarekin, zeinak zuzena, argia eta proportzionala izan beharko baitu.
- Zerbitzu kontratuetan, baliabide nahikoa ez dagoela adierazten duen txostena.
- Kontratuaren helburua loteetan ez zatitzeko erabakia, hala badagokio.

Era berean, espedientean sartu beharko da **kreditua badagoela adierazten duen ziurtagiria**.

## 2.2. Espedientea onartzea.

Kontratazio espedientea osatu eta gero, **ebazpen arrazoitua emango da, espedientea onartuko da eta esleipen prozedura irekiko da. Ebazpen horretan, gastua ere onartuko da** (salbu eta aurrekontua ezin izan bada aurretik ezarri, edo deskontzentrazio arauak edo delegazio ekintzak aurkakoa ezartzen badute; kasu horietan, organo eskudunaren onarpena lortu beharko da). Ebazpena UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren webguneko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, eta argitalpen hori Estatuko Kontratazio Plataforma batera edo Euskal Autonomia Erkidegoko haren baliokidera lotuta egongo da esteka baten bitartez.

## 2.3. Litzitazio iragarkia.

Publizitaterik gabe negoziatutako prozeduretan izan ezik, gainerakoetan litzitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da, zeina kontratazio plataformaren batera lotuta egongo baita, eta kontratazio organoak egokitzat jotzen badu, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean ere argitaratu ahal izango da.

Kontratuen litzitazio iragarkiek SPKLren 4. ataleko III. eranskinean jasotzen den informazioa izango dute.

## 2.4 Esleipena egiteko prozedura.

Jarraian deskribatzen dira erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuen alderdi nagusiak; izan ere, horiek dira UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak gehien formalizatzen dituen kontratuak, haien zenbatekoagatik.



Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen irizpide eta **prozedura irekia** (sinplifikatu egin daiteke) edo **prozedura murriztua** erabiliko dira normalean. Hala ere, noizean behin erabaki daiteke prezioaren irizpide bakarra erabiltzea.

SPKLren 168. artikuluko kasuetan, **publizitaterik gabeko prozedura negoziatua** erabili ahal izango da.

SPKLren 167. artikuluan adierazten diren kasuetan, **lehia elkarrizketa** erabili ahal izango da.

SPKLren 177. artikuluan adierazten diren kasuetan, **berrikuntzarako elkarketaren prozedura** erabili ahal izango da.

**Kontratu txikiak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio** jarduteko gaitasuna duen eta kontratuaren helburu den prestazioa emateko behar den gaitasun profesionala duen edozein enpresariri, SPKLren 118. artikuluan ezartzen diren arauekin bat etorritik.

#### a) **Prozedura irekia.**

Prozedura irekian, interesa duten enpresari guztiek proposamen bat aurkeztu ahal izango dute, eta ezingo dira kontratuaren baldintzak negoziatu pertsona fisiko edo juridiko lizitatzailleekin.

#### *Proposamenak aurkezteko gutxieneko epea.*

Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuetan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango hamabost egunetik beherakoa, kontratuaren lizitazio iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

#### *Esleipen proposamenen azterketa.*

Klausula juridiko-ekonomikoen pleguan aurreikusten den kontratazio mahaiak, lehenik eta behin, SPKLren 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko du (gaitasunaren akreditazioa, kaudimena eta kontratatzeko debekurik eza). Dokumentazio horiek pertsona fisiko edo juridiko lizitatzailleek aurkeztuko dituzte proposamena jasotzen ez duen gutun azal edo fitxategi elektronikoko batean. Gero, organo horrek berak proposamenak ireki eta aztertuko ditu, eta dagokion esleipen proposamena egingo dio kontratazio organoari, esleipendun ateratzen diren pertsona fisiko edo juridikoak hautatzeko aplikatzen diren irizpideak haztatu ondoren.

145. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik hainbat esleipen irizpide erabiltzen direnean, pertsona fisiko edo juridiko lizitatzailleek bi gutun azal edo fitxategi elektronikotan aurkeztu beharko dute proposamena: batean, balio judizio baten arabera haztatzekoak diren irizpideei jarraituz baloratuko den dokumentazioa jasoko da, eta bestean, formulak aplikatuz kuantifika daitezkeen irizpideen arabera baloratuko den dokumentazioa.

Proposamenak hogeit eguneko epean ireki behar dira, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera. Proposamena gutun azal edo fitxategi elektronikoko batean baino gehiagotan badago jasota eta horiek hainbat ekintza independentetan ireki behar badira, aurreko epe hori



betetzat joko da proposamena osatzen duten gutun azal edo fitxategi elektronikoko horietako lehenengoa irekitzen denean.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoa ekitaldi publikoan irekiko da, salbu eta lizitazioan aurreikusten bada baliabide elektronikoak erabil daitezkeela.

Proposamena baloratzean prezioa ez den beste irizpide batzuk hartu behar badira kontuan, horretarako organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu proposamena egin baino lehen. Horrez gain, txostenak eskatu ahal izango zaizkie prestazioa jasotzen duten erabiltzaileen erakunde sozialei, kontratuaren helburuari dagokion jardueraren arloko erakunde ordezkariari, erakunde sindikalei, genero berdintasuna defendatzen duten erakundeei eta beste erakunde batzuei, gizarte eta ingurumen arloko alderdiak egiaztatzeko.

### ***Esleipena.***

Pertsona fisiko edo juridiko esleipendunak hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, esleipena hamabost eguneko epean egin behar da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren esleipena hainbat irizpideren araberakoa denean, esleipena egiteko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, administrazio klausula partikularren pleguan bestela ezarri ezean.

### ***Prozedura sinplifikatuta.***

SPKLn prozedura ireki sinplifikatu bat arautzen du (SPKLren 159. artikulua) 2.000.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetarako obra kontratuen kasuan eta 100.000 euroko edo hortik beherako kontratuetarako hornidura eta zerbitzu kontratuen kasuan. Beste baldintza batzuez gain, prozedura sinplifikatu honen bitartez egindako lizitazioetara aurkezten diren pertsona fisiko eta juridiko lizitatzailerik guztiak inskribatuta egon beharko dute eskaintzak aurkezteko orduan Sektore Publikoko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion autonomia erkidegoko erregistro ofizialean.

### **b) Prozedura murriztua.**

Prozedura murriztuan, interesa duen edozein pertsona fisikok edo juridikok aurkeztu ahal izango du parte hartzeko eskaera bat lizitazio deialdi batean. Kontratazio organoak hautatzen dituen enpresariak baino ezingo dituzte proposamenak aurkeztu, eta, hautaketa hori egiteko, enpresarien eskaera eta haien kaudimena hartuko da kontuan.

Prozedura honetan, ezingo da kontratuaren baldintzarik negoziatu eskatzaile edo hautagaiekin.

Prozedura hau bereziki egokia da konplexutasun bereziko zerbitzu intelektualetarako; adibidez, aholkularitza, arkitektura eta ingeniarietarako zerbitzuak.



Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da gutxienez, lizitazio iragarkia argitaratzen den egunetik hasita.

Parte hartzeko eskaerekin batera SPKLren 140. artikuluan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

### ***Pertsona fisiko eta juridiko hautagaien hautaketa.***

Lizitazio iragarkia argitaratu baino lehen, kontratazio organoak ezarrita eduki beharko ditu kaudimenari buruzko irizpide objektiboak (SPKLren 87. artikulutik 91.era adierazten direnen artean), proposamenak aurkezteko zein pertsona fisiko edo juridiko aukeratuko diren erabakitzeko.

Kontratazio organoak adieraziko du gutxienez zenbat pertsona fisiko edo juridiko gonbidatuko dituen prozedura batean parte hartzera (ezingo dira izan bost baino gutxiago). Hautaketa irizpideak betetzen dituzten hautagaiak gutxieneko kopuru hori baino gutxiago badira, kontratazio organoak prozedurarekin aurrera egin ahal izango du eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenekin. Hala ere, ezingo dira gonbidatu bertan parte hartzeko eskaera egin ez duten enpresariak edo baldintzak betetzen ez dituzten hautagaiak. Kontratazio organoak, egokitzat jotzen badu, eskaintza aurkeztera gonbidatuko duen gehieneko hautagai kopuru bat ezarri ahal izango du. Edonola ere, hautagai gonbidatu nahikoa behar da lehia eraginkor bat bermatzeko.

Lizitazio iragarkian adieraziko da hautagaiak hautatzeko zein irizpide edo arau objektibo eta ez-diskriminatzaile hartuko diren kontuan eta, hala badagokio, gehienez ere zenbat hautagai gonbidatuko diren proposamenak aurkeztera.

Eskatzaileen izaera eta kaudimena egiaztatu eta gero, kontratazio organoak erabakiko du nor pasatuko den hurrengo fasera eta nortzuk gonbidatuko dituen, aldi berean eta idatziz, proposamenak aurkeztera, SPKLren 164. artikuluan adierazten den epean.

### ***Hautagai fisiko edo juridikoei igortzen zaien gonbidapenaren eta informazioaren edukia.***

Gonbidapenetan, honako hauek adieraziko dira: argitaratutako lizitazio iragarkia eta eskaintzak jasotzeko azken eguna; eskaintzak bidali behar diren helbidea eta eskaintzak idazteko hizkuntza edo hizkuntzak; hala badagokio, osagarri gisa aurkeztu behar diren dokumentuak; kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak eta dagokien ponderazioa edo, hala badagokio, irizpideei emango zaien garrantziaren beheranzko hurrenkera, lizitazio iragarkian agertzen ez badira; eta proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua.

Hautagaiarentzako gonbidapenean jasoko dira, halaber, pleguak eta gainerako dokumentazio osagarria bide elektronikoetatik lortzea baimentzeko jarraibideak.



### ***Proposamenak.***

Erregulazio harmonizatuaren menpe ez dauden kontratuei dagozkien prozedura murriztuetan, proposamenak aurkezteko epea gutxienez hamar egunekoa izango da, gonbidapena bidaltzen den egunetik hasita.

### ***Esleipena.***

Kontratua esleitzeko prozesuan, SPKLk dioena aplikatuko da prozedura irekirako, dokumentazioa aldez aurretik kalifikatzeko beharrari dagokionez izan ezik (SPKLren 140. artikuluan aipatzen den behar hori).

#### **a) Prozedura negoziatua.**

Prozedura negoziatuetan, kontratazio organoak modu arrazoituan hautatutako pertsona fisiko edo juridiko lizitzaileari esleitzeko zaio kontratua, kontratuaren baldintzak hautagaietako batekin edo zenbaitekin negoziatu ostean.

Klausula juridiko-ekonomikoen eta baldintza tekniko berezien pleguan edo pleguetan, zehatz-mehatz adieraziko dira honako hauek: hala badagokio enprekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak; kontratazio organoen beharrak eta kontratatuko diren horniduretarako, obretarako edo zerbitzuetarako eskatzen diren ezaugarriak; negoziatzeko erabiliko den prozedura, zeinak une oro bermatuko baitu negoziazioa erabat gardena izango dela, publikoa izango dela eta parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko lizitzaileen artean ez dela diskriminaziorik egingo; kontratuari dagokion prestazioaren elementuak, hau da, eskaintza guztiek bete beharreko gutxieneko eskakizunak; eta esleitzeko irizpideak.

SPKLren 167 eta 168. artikuluetan adierazitako kasuetan erabili ahal izango dira prozedura negoziatuak. Baldin eta 168. artikulua jasotzen dituen salbuespenezko egoerarik gertatzen ez bada, kontratazio organoek lizitazio iragarkia argitaratu beharko dute.

Tramitazioa SPKLren 169. artikulutik 171.era bitartekoetan garatzen da.

#### **b) Lehia elkarriketa.**

Lehia elkarriketan, lehia elkarriketarako mahai bereziak elkarriketa bat izaten du aukeratutako hautagai fisiko edo juridikoekin, haiek eskaera egin ondoren, haien beharrak asetzeko irtenbide bat edo batzuk adosteko asmoz, aukeratutako hautagaiek eskaintza bat aurkezteko oinarri gisa balio dezaten.

Enpresa interesdun orok aurkeztu ahal izango du parte hartzeko eskaera bat, lizitazio iragarki bati erantzunez; horretarako, kontratazio organoak hautaketa kualitatiboa egiteko eskatu duen informazioa eta dokumentazioa aurkeztu beharko ditu.



Lehia elkarrizketaren prozedura ezingo da erabili 167. artikuluan zerrendatutako kasuetan, eta, elkarrizketaren aurretik, lizitazio iragarkia argitaratu beharko da.

Tramitazioa SPKLren 174. artikulutik 176.era bitartekoetan garatzen da.

### c) **Berrikuntzarako elkarketa prozedura.**

Berrikuntzarako elkarketa prozeduraren helburua da produktu, zerbitzu edo obra berritzaileak garatzea eta hortik sortzen diren hornidura, zerbitzu edo obrak erostea, betiere bat baldin badatuz kontratazio organoaren eta parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoen artean adostutako errendimendu mailekin eta gehieneko kostuekin.

Horretarako, klausula juridiko-ekonomikoen eta baldintza tekniko partikularren pleguetan, kontratazio organoak zehaztuko du zer-nolako beharra dagoen produktu, zerbitzu edo obra berritzaile bat erosteko, merkatuan eskura dauden produktu, zerbitzu edo obrak erosiz ase ezin denean. Halaber, adieraziko du deskribapeneko zein elementu izango diren pertsona fisiko edo juridiko lizitatzailerak guztiek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak, eta zehaztuko du zein xedapen aplikatuko zaizkien jabetza intelektual eta industrialaren eskubideei.

Informazioa zehatz emango da, enpresariak irtenbidearen ezaugarriak eta esparrua identifikatu ahal izan ditzaten eta prozeduran parte hartzeko eskaera egin ala ez erabaki dezaten.

Kontratazio organoak erabaki ahal izango du berrikuntzarako elkarketa nola eratuko duen, edo bazkide batekin edo ikerketa eta garapen jarduerak bereiz egingo dituzten bazkide batekin baino gehiagorekin.

Bazkidea edo bazkideak aldeztu aurretik hautatuko dira, SPKLren 178 eta 179. artikuluetan araututako moduan.

Prozedura horren bidez esleitzen diren kontratuak arau hauek izango dituzte oinarri:

- Ikerketa eta garapen fasean, erregelamenduaren arabera ezartzen diren arauak, baita dagozkien pleguetan jasota dauden aginduak ere, eta, horien osagarri, zerbitzu kontratuaren arauak.
- Prozedura honetatik eratortzen diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gauzatzeko fasean, dagokion prestazioarekin lotutako kontratuaren arauak.

### **2.5. Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.**

Kontratazio mahaiak, edo, hura ez badago, kontratazio organoak, aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, beharrezko hurrenkeran, eta, ondoren, bere **proposamena** aurkeztuko dio kontratazio organoari, baldin eta sailkapena kontratazio mahaiak egin badu.



Sailkapena egiteko, pleguan adierazitako esleipen irizpideei jarraituko zaie, eta, horretarako, nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango dira. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa baldin bada, ulertuko da eskaintzarik onena prezio txikiena dakarrena dela.

Kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, dagokien zerbitzuek eskaintzarik onena aurkeztu duen **pertsona fisiko edo juridiko lizitatzailerari eskatuko diote**, bat etorri SPKLren 145. artikularekin, aurkez ditzala 140. artikuluko 1. ataleko a) hizkitik c) hizkira bitartean adierazten diren egoeren egiaztagiria hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere aurretik aurkeztu ez baditu.

Egiaztagiri horiek bitarteko elektronikoa, informatikoa nahiz telematikoa aurkeztu ahal izango dira, pleguetan besterik adierazi ezean.

Errekerimendua ez bada behar bezala betetzen ezarritako epean, ulertuko da lizitatzailerak albo batera utzi duela bere eskaintza, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa; horrez gain, dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo pertsona fisiko edo juridiko lizitatzailerari, eskaintzak sailkatuta gelditu diren hurrenkerari jarraituz.

## **2.6. Esleipenaren ebazpena eta jakinarazpena.**

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egunen barruan emango du **kontratua esleitzeko ebazpena**.

Prozedura negoziatuan, lehia elkarrizketako prozeduran eta berrikuntzarako elkarketa prozeduran, esleipenak kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta ezarriko ditu.

Esleipenaren ebazpena arrazoitu egingo da eta hautagai eta lizitatzailerari jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpenean eta iragarkian jasotzen den informazioak esleipen prozeduran interesatuta daudenei modua emango die esleipen erabakiaren aurka ondo funtsatutako errekurtsioa aurkezteko.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoa egingo da, hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

## **2.7. Kontratuak formalizatzea.**

Kontratuak erakunde kontratatzailearen dokumentu ofizial batean formalizatuko dira, zeina guztiz bat etorriko baita lizitazio baldintzekin, eta dokumentu hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, pertsona fisiko edo juridiko kontratatzaileak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jaso dadila, eta bere kontura ordainduko ditu dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzeako dokumentuan inola ere ezingo da sartu esleipenaren baldintzak aldarazten dituen klausularik.





SPKLren 118. artikuluan jasota datozen kontratu txikien kasuan, artikuluko horretan adierazten diren dokumentuak aurkeztuko dira egiaztagiri gisa.

Baldin eta esleipendunari egotz dakizkiokeen kausak direla-eta kontratua ez bada emandako epean formalizatu, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzailerari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta gelditu diren hurrenkerari jarraituz, SPKLren 150. artikuluko 2. atalean ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko paragrafoan adierazitako epeak aplikatuko dira.

Kontratua ez formalizatzearen kausak Administrazioari egoztekoak baldin badira, atzerapenak sortu ahal izan dizkion kalte-galeren ordaina emango zaio kontratatzaileari.

SPKLren 36.1 eta 131.3 artikuluetan kontratu txikietarako ezartzen dena alde batera utzita, eta baldin eta SPKLren 120. artikuluari jarraikiz kontratazio espedientearen premiaz izapidetu behar ez bada, kontratua ezingo da formalizatu baino lehenago gauzatu.

## **2.8. Formalizazioa iragartzea.**

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratazio organoak kontratatzailearen profilean kontratua burutu eta gehienez ere hamabost eguneko epean argitaratuko da. Kontratu txikiak, berriz, SPKLren 63. artikuluko 4. atalean ezarritako moduan argitaratuko dira. Kontratuen formalizazioari buruzko iragarkiek III. eranskinetako informazioa jasoko dute.

Kontratua gauzatzeari buruzko datu jakin batzuk argitaratu gabe utzi ahal izango dira honako kasu hauetan: uste baldin bada, eta espedientearen behar bezala justifikatzen bada, informazio hori zabaltzea arau bat aplikatzeko oztopo izan daitekeela, interes publikoaren kontrakoa izan daitekeela edo enpresa publiko edo pribatuaren legezko interes komertzialei edota haien arteko lehia leialari kalte egin diezaikeela; baldin eta kontratu isilpekoak edo erreserbatuak badira, edota indarrean den legeriaren arabera segurtasun neurri bereziak behar badira kontratu horiek gauzatzeko; edo baldin eta estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babesteko beharrezkoa bada eta hala adierazi bada, bat eginez SPKLren 19. artikuluko 2. ataleko c) hizkian xedaturikoarekin.

Nolanahi ere, baldin eta kontratua gauzatzeari buruzko datu jakin batzuk ez argitaratzea erabakitzen bada, kontratazio organoek eskatu beharko dute gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aipatzen duen Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak txostena eman dezala, eta txosten horretan ikusiko da ea informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gailentzen zaien ala ez zaien gailentzen informazioa ez argitaratuta babestu nahi diren ondasunei. Txosten hori asko jota hamar egunean bideratuko da.

Aurrekoa gorabehera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari ez zaio txosten hori eskatuko baldin eta kontratazio organoak aldeztatik kontsulta egin badu gai berari edo antzeko bati buruz; hori bai, kasu horretan, txostena espedientearen jaso ez izana justifikatu beharko da, atal honetan adierazitako moduan.



#### **A.4. EZTABAIDAK, EKINTZAK ETA ERREKURTSOAK EBAZTEKO PROZEDURAK ETA ORGANO ETA ORGANISMOAK**

SPKLren 27. artikuluari jarraituz, kontratuen prestaketari, esleipenari eta aldaketari buruzko eztabaidak administrazioarekiko auzietako jurisdikzio organoek ebatzi beharko dituzte, eta kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta amaitzeari buruzko eztabaidak, berriz, ordena zibileko jurisdikzio organoek ebatziko dituzte azkenik.

Jurisdikzio bideari ekin aurretik, eta betiere SPKLren 44. artikuluan adierazitakoa betetzen bada, kontratazio arloko berraztertze errekurtsu berezia jarri ahal izango da EAeko kontratu baliabideen administrazio organoaren aurrean, eta kasu horretan, 44.5 artikuluekin bat eginez, ezingo da bestelako administrazio errekurtsorik aurkeztu.

SPKLren 44.6 artikuluari jarraikiz, baldin eta UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAK egiten dituen jarduketek ez badituzte betetzen SPKLren 44. artikuluko 1. atalean ezarritako eskakizunak, zergatik eta fundazio hori botere esleitzaila delako eta ez administrazio publiko bat, jarduketa horiek administrazio bidetik inpugnatuko dira, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin. Horretarako, "gorako errekurtsu inpropioa" jarriko da UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOA atxikita dagoen eta haren zaintza dagokion EUSKAL HERRIKO UNIBERSTITATEKO errektorearen aurrean.

SPKLren 60. artikulua araberan, baldin eta errekurtsua ebatzeko eskumena duen organoaren ebazpen baten aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzen bada, eta jurisdikzio epaimahaiak administrazio espedientea eskatzeko egiten duen diligenza jaso ondoren, dagokion salaren aurrean agertzeko deia egingo zaie errekurtsua jartzea eragin duen egintza gauzatu duen kontratazio organoari eta prozeduran sartuta dauden gainerakoei. Aurreko paragrafoan adierazitako dei hori, hain zuzen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 49. artikuluan ezartzen den moduan egingo da.